# VI Edición Premio

# FRANCISCA DE ACULODI

Reunido el Jurado de la VI Edición del Premio FRANCISCA DE ACULODI a la inclusión de la perspectiva de género en los trabajos de fin de Grado de la UPV/EHU —Curso 2018/2019— Rama del conocimiento: Ciencias de la salud y analizados los 6 trabajos presentados, el jurado ha decidido dar los premios a los siguientes trabajos:

En euskera:

**EMAKUME MUSULMANEN AHALDUNTZERAKO ESKU-HARTZE PROGRAMA**

Accesit

**ANTSIOLITIKO ETA HIPNOTIKO SEDAGARRIEN KONTSUMOA NAZIOARTEAN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN: GENEROAREN ARABERAKO EZBERDINTASUNA**

En castellano:

**LA ATENCIÓN FARMACÉUTICA EN PERSONAS TRANS EN EL MARCO DE LA OFICINA DE FARMACIA**

En cumplimiento del punto 3 de la convocatoria

"El Jurado hará público el resultado de la convocatoria antes del 14 de febrero de 2020 en la página web https://www.ehu.eus/es/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-vi-edizioa. Se incluirán estos datos: nombre de la persona ganadora, nombre de la tutora o tutor, Grado y Centro al que pertenece y título y resumen del trabajo o trabajos ganadores"

Ganadora al trabajo en euskera:

**Arantzazu Ruiz-Carrillo Idarreta**

Grado en Psicologia (Facultad de Psicología)

Tutora: Nagore Asla Alcibar

**EMAKUME MUSULMANEN AHALDUNTZERAKO ESKU-HARTZE PROGRAMA**

RESUMEN:

Lehen bizitza pribatuko arazo gisa hartzen zen arren, gaur egun, indarkeria matxista osasun arazo, arazo politiko eta soziala bihurtu da. Indarkeria honek modu zabalean giza eskubide eta askatasuna eragozten dizkie emakumeei. Estatu Espainolean genero indarkeriaren prebalentzia hamar handiz handiagoa da etorkinak diren emakumeengan, hauek egoera honetan egotera zaurgarriago direlarik. Ekintzailetza proiektu honen bidez, emakume etorkin musulmanei ahalduntzeko baliabideak eskaini nahi zaizkie. Helburu nagusia euren ahalduntzea bada ere, genero indarkeriaren prebentzio primarioko jarduera gisa uler daiteke. Ahalduntzea kontzientzia kritiko bat garatuz, autoestimua hobetuz eta harrera herriko isolamendu soziala murriztuz lortu nahi da. Feminismo islamikoa landuko da, islamaren barruan askapen prozesuak bultzatzeko emakumeek ematen dituzten urratsak kontuan hartuz. Programak guztira 7 saio izango ditu eta parte hartzaileak Oionen (Araba) bizi diren emakume etorkin musulmanak izango dira, nahiz eta azkenengo saioa komunitate osoari zabalduta egongo den. Bestetik, esku hartze honetan prozesua, emaitzak eta inpaktua ebaluatuko dira.

Accesit:

**Ane Del Palacio Totoricagüena**

Grado en Medicina (Facultad de Medicina y Enfermeria)

Tutora y Tutor: Aitziber Mendiguren Ordorica y Joseba Pineda Ortiz

**ANTSIOLITIKO ETA HIPNOTIKO SEDAGARRIEN KONTSUMOA NAZIOARTEAN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN: GENEROAREN ARABERAKO EZBERDINTASUNA**

RESUMEN:

**Sarrera:** Antsietate eta loezinaren prebalentzia handia da gizartean. Hauen tratamendurako, ansiolitikoak (bentzodiatzepinak, BZD) eta hipnotiko sedagarriak (BZD, Z-hipnotikoak eta beste batzuk) erabiltzen dira.
**Hipotesia eta Helburuak:** Espainiako populazioaren %16ak psikofarmakoren bat kontsumitu zuten 2001-2002 artean, erabilienak, BZD-ak izan zirelarik. Ebidentziek diotenez, generoa aldagai esanguratsua da psikofarmakoen kontsumorako. Ikerlan honen helburuak: 1) Nazioartean gertatzen den antsiolitikoen eta hipnotiko sedagarrien kontsumoaren generoaren araberako analisia egitea eta 2) 2006-2018an Euskal Autonomia Erkidegoan eman zen antsiolitikoen eta hipnotiko sedagarrien generoaren araberako kontsumoa aztertzea, izan ziren.
**Material eta Metodoak:** Lehenengo helbururako, bilaketa bibliografiko sistematizatua egin zen: pubmed, google scholar, tripdatabase, cochrane, embase datu baseetan. Bigarren helbururako, Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko Farmazia zuzendaritzarekin elkarlanean, EAEn saldutako antsiolitiko eta hipnotiko sedagarrien ontzi kopuruak lortu eta analizatu ziren. Horrez gain, 2006-2018 urte arteko Z > 18 urteko populazio datuak lortu ziren Estatistikako Institutu Nazionaletik (EIN). Datuen analisirako Excel eta Graphpad Prism programak erabili ziren.
**Emaitzak:** Aztertutako 10 ikerketa transbertsaletan, emakumezkoen antsiolitiko eta hipnotiko sedagarrien kontsumoa, gizonezkoena baino handiagoa izan zela ikusi zen Norvegian, Ingalaterran, AEBn, Kanadan, Belgikan, Brasilen, Japonian edota Holandan. 2006-2018 urteen artean EAEn kontsumitutako antsiolitikoen %73 eta hipnotiko sedagarrien %66 emakumezkoetan eman ziren. Emakumezkoetan kontsumitu zen ontzi kopurua 100 biztanleko, gizonezkoetan baino 1,09 aldiz handiagoa izan zen antsiolitikoen kasuan eta 0'87 aldiz handiagoa hipnotiko sedagarrien kasuan. Emakumezkoek antsiolitikoak kontsumitzeko 2,2 eta hipnotiko sedagarriak kontsumitzeko 2 aldiz probabilitate handiagoa izan zuten gizonezkoek baino. Antsiolitikoen kontsumoan generoaren araberako ezberdintasun handienak, 2009. urtean gertatu ziren eta hipnotiko sedagarrien kasuan, aldiz, 2011. urtean.
**Eztabaida eta Ondorioak:** EAE-ko datuak, bat datoz nazioarteko ikerketetan deskribatutakoarekin, zeintzuetan emakumezkoen BDZ eta hipnotiko sedagarrien kontsumoa gizonezkoetan baino handiagoa izan zen. Interesgarria litzateke, EAEko datuak beste zenbait faktoreren arabera (adina, maila, sozioekonomikoa...) sailkatuta lortzea, modu horretara, kontsumoan duten eragina aztertu eta nazioarteko datuekin hobeto alderatu ahalko liratezke.

Ganadora al trabajo en castellano:

**Udane Pérez Sobrón**

Grado en Farmacia (Facultad de Farmacia)
Tutor y Tutora: Jorge Ortega Calvo y Estibaliz Mateos Pérez

## LA ATENCIÓN FARMACÉUTICA EN PERSONAS TRANS EN EL MARCO DE LA OFICINA DE FARMACIA

RESUMEN:

La transexualidad se define como el deseo de vivir y ser aceptado como un miembro del sexo opuesto y suele acompañarse de sentimientos de malestar o desacuerdo con el sexo anatómico propio. Todo ello puede conllevar que las personas trans quieran modificar sus características sexuales mediante tratamiento hormonal y/o quirúrgico.
Pese a los avances sociales alcanzados sobre el colectivo trans, actualmente sigue siendo una cuestión sobre la cual existe mucha desinformación, tanto para las propias personas que lo viven, como para el conjunto de profesionales que las atienden. Algunos ámbitos son de especial importancia en la mejora de la calidad de vida de estas personas (p. ej., social, educativo y el sanitario). Dentro del ámbito sanitario, a nivel nacional existen protocolos de actuación encaminados a desarrollar una buena atención hacia las personas trans, sin embargo, están dirigidos al profesional médico. En vista que el colectivo trans acude de manera regular a las oficinas de farmacia para el suministro de sus tratamientos hormonales, así como para solicitar información sobre los mismos, resulta de gran relevancia el desarrollo de protocolos específicos de atención farmacéutica.

En el presente trabajo se ha realizado una búsqueda de las guías de práctica clínica vigentes tanto a nivel nacional como internacional y se han elaborado informes integrados con los correspondientes algoritmos terapéuticos en función del caso clínico concreto. En ellos se describen los principios activos junto con las vías de administración, la posología y las reacciones adversas más frecuentes. Por otro lado, se ha diseñado una guía de buenas prácticas en atención farmacéutica, en la que se incluyen los algoritmos terapéuticos generados, junto con la información imprescindible referente a los principios activos, sus indicaciones, consejos farmacéuticos, información acerca del protocolo de derivación sanitario existente, así como información de contacto útil en caso de así requerirlo.